

## Zangarik ireki gabe berritu dute Santa Barbarako ur zikinen tuberia

■ Gay Mur eta Santa Barbara lotzen dituen tuneletik Larramendira pasa dute tuberia, 60 metroan ■ Erabili duten sistema berria da; 800 mm-ko diametroa duen tuberiarekin European lehen aldiz erabili da.



1. Mailua. 2. Burua. 3. Mailua, burua eta tubo berria. 4. Tubo berria sartzen zahararen barrutik.


TELLERIGAINETIK Alberroainoko ur zikinak biltzen dituen tuberia oso hondatua zegoen tramo batean, egindako estudioen arabera. Manuel Fraile hirigintza zinegotziak astearteko prentsaurrekoan esan zuenez, oztopo asko zeuden tuberia pasatzeko, tuberia zaharra urbanizazio baten erditik pasatzen baitzen eta auskalo zein sakoneratan. Trabak konpontzeko punta puntako erremedioa erabili dute: *Pipe-Bursting* sistema. Fraileren hitzetan "molestia asko ebitatu dira eta obra merkeago atera da, gainera". Sistema honekin ez da zangarik egin behar. Tuberia berria zahararen barruan sartzen da; zenbait kasutan lehengoa baino diametro handigokoa, gainera.

**"EUROPAN LEHENENA"** Añarbeko Uren lehendakariak, Enrique Noainek, urbanizazioari kalterik ez egitearen garrantzia aipatu zuen. European lehen aldiz omen da diametro horretako tuberia *Pipe-Bursting* sistemarekin pasatzen dena, baina, laister zabal-

duko omen da leku gehiagotara. Esan zuen gurea "herrialde zaharra" dela eta "zahartutako tuberia asko" dela. Sistema honek asko errezutuko omen du saneamenduak berritzea.

### BI ORDUTAN PASEA

Astearteko prentsaurrekoak ikusmin handia sortu zuen. Kamara eta periodisten artean esplikatu zuten sistema aintzindariaren funtzionamendua. Tuberia astearte arratsaldean pasa zuten. Hasierako eta bukaerako zuloak eginak zeuden eta makinak pronto. Makinak martxan jarri eta bi orduan paseak zeuden 60 metroak. Kontuak atera Gay Mur ikastetxeke patio guztia zulatzen hasi behar izan balute... □



■ Bi zulo ireki: bat tuboa sartzeko lekuan eta bestea ateratzekoan. Tubo berria zaharra zegoen tokitik pasako da.

■ Polietilenoko tuboari material gogorreko buru bat jartzen zaio muturrean. Tuboaren eta buruaren barrutik mailu pneumatiko bat pasako da mutur muturreraino; hain zuzen ere bidea irekitzeko indarra egingo duena. Indarra mailuak egiten du eta bidea ireki buruak. Mailua zulo bukaeran dagoen motor batera dago konektatua kable baten bidez eta atzetik haizea emango dion mangera daramaki.

■ Tuboa pasa denean hasiera eta bukaerako zuloak itxi eta saneamendua berrituta, zanga ireki beharrik gabe.

### MENDIRIZ MENDI

#### Gaztetxoentzat irteera Aldura (537 m) eta Urdaburura (598 m)

■ Datorren igandean da. MENDIRIZ Mendik gaztetxoentzako irteera antolatu du hilaren 27rako (datorren igandea). Aldura eta Urdaburu mendietara joango dira, goizeko 08:00etan Atsegindegitik irtenda.

#### IZEN EMATEKO AZKEN EGUNA GAUR

Gaur da izen emateko azken eguna, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara Mendiriz Mendiko lokalean (Iturregi Plazan). Prezioak: gaztetxoentzat 2 euro; helduentzat 4 euro. □

#### OSASUNA ZAINTEKO IKASTAROA

#### 'Bizitzaren medikalizazioa' gaur Biterin

OSASUN ona izateko ikastaroak ematen ari dira Biterin. Hamabi hitzaldi emango dituzte guztira; gaur hirugarrena: *Bizitzaren medikalizazioa*. Sumendi taldeko kideak dira hizlariak.

Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da, Biteri kultur etxean. □

#### Gitarra kontzertua bihar Sandiusterrin: 'Armonia Co Guitar Ensemble'

■ Arratsaldeko 19:30etan.

MUSIKO seikote bat ariko da bihar Sandiusterrin. Bost gitarra eta bateria jole batek osatzen dute *Armonia Co Guitar Ensemble* taldea. Musika modernoa jotzen dute gehien bat, estilo ezberdinak nahastuta.

Kontzertua musika eskolak antolatu du hilean behingo kontzertuen barruan. □

**ZINGI-ZANGA**  
Jatetxea  
Egunero menuak.  
Afariak enkarguz.  
Ostiraletan mus txapelketa.  
Florida 54  
Tel: 943 33 03 97

**HATOR**  
Asesoría  
AHOLKULARITZA  
Fiskala  
Laborala  
Kontablea  
Administratiboa  
Kardaberaz 60  
Tel. 943. 55 43 12  
20120 HERNANI

**GALARRETA JAI-ALAI**  
FRONTOIA  
Gaur binakako txapelketako partidua:  
ALTUNA I - EIZAGIRRE / IÑIGO - LIZASO  
GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:  
1. partidua: ZALAKAIN - ETXEBERRIA II / ZEBERIO II - AIZPURUA II  
2. partidua: ALTUNA I - EIZAGIRRE / IÑIGO - LIZASO -Txapelketakoa-  
3. partidua: ZEBERIO II - AIZPURU / ALTUNA II - IRIARTE  
4. partidua: BITORIA - MENDIZABAL / KALONJE - URRETABIZKAIA

GREBA SELAK ETA SAVERA ENPRESETAN

## Selak eta Saverako langileek manifestazioa konbokatu dute, gaurko

■ Manifestazioa goizeko 11:00etan da eta "gizarte osoari" egin diote deialdia.

SAVERA eta Selak enpresetako langile komiteak manifestazioa deitu du gaur goizera. Manifestazio deialdiak bi enpresetako sindikatu guztien babesa du. Manifestazioa Selak aurretik atera, kaxkoan

barrena ibili eta Selak-en bukatuko da, ostera. Langile komiteak gizarte osoari luzatu dio joateko deia.

Langileek lan baldintzak hobetzea eskatzen dute. Arazoak ez du oraingoz konpon-

tzeko itxurarik. Selaken, enpresa zuzendaritza eta langileak bildu dira, baina, bilera akordiorik gabe bukatu zen. Saveran, berriz, oraindik ez da bilerririk izan. Bi enpresetako langileek greban jarraituko dute.

## Gazte Txokoa pintatu eta 'grafiti'ekin apaindu dute

■ Urtarrileko ekintzen barruan txukundu dute lokala ■ Gaur ispilu eta irrati tailerra dute; bihar sukaldaritza; larunbatean ordenagailuak; eta igandean zinera irteera.



Hernaniko Gazte Txokoko gazteak merendola betean.

GAZTE Txokoa urtea bukatu bezelaxe hasi dute berria: ekin tzez betea. Lehengo astean pintaketan aritu dira, eta lokala bizixeko gelditzeko-edo grafitiak ere egin dituzte. Gaurtik igandera irrati tailerrak, sukaldetan ikasteko tailerrak, udal ordenagailuetan praktikak eta zinera irteera izango dute.

### GABONETAKO BALORAZIO ONA

Gabon bueltan irekita egon da Gazte Txokoa, eta gazte asko ibili da gainera. Bazkariak eta karaoke lehiaketak arrakasta handia izan dute, eta akuriumera bisita eta bideoforumean ere ez da gazte faltarik izan. □

Urtarrileko egitaraua	
Eguna	Ekintza
24	Ispilu eta irrati tailerra
25	Sukaldaritza tailerra
26	Ordenagailuak
27	Zinera irteera (3 euro)
29	Zinea
30	topagunea
31	kolpante tailerra

## ESKOLARTEKO KIROLA - EMAITZAK



Laura Madina, Eider Aldabe, Xabi Zabaleta, Manex Pagola eta Txomin Lizeaga.

LARUNBATEAN atletismo probak jokatu zituzten Antzionalako pistan. Benjaminetan Hernaniko 100 gaztek hartu zuten

parte. Alebin eta infantil mailetan inguruko herrietakoak lehiatu ziren hernaniarrekin batean. Argazkian daudenak infantil

mailako atleta hernaniarrak dira, proba hasi aurretik. Irripartsu, ez dirudi nekatzeko bildur haundirik dutenik. □

## 'ETXERAT' ELKARTEA

### Presoak Euskal Herriratzea eta giza eskubideak errespetatzea eskatzeko kontzentrazioa, bihar

■ Inma Noble, Gabino Etxeberria eta Asier Ormazabal egoera salatu ditu Etxeretek.

ETXERAT elkarteak hileroko kontzentrazioa du bihar Gudarién Plazan. Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko eta presoan eta senitartekoen giza eskubideak errespetatzeko eskatuko dute, 20:00etan.

### NOBLE, ZIGORRAREN 3/4 AK BETETA

Etxerat elkarteak prentsa ohar baten bidez salatu du Inma Noble hernaniar presoak kondeneraren hiru laurdenak atzo bete zituela, baina, oraindik kartzelan jarraitzen duela. Hernanin badira bost preso egoera berean daudenak.

### ASIER ETA GABINO, FRANTZIAN

Asier Ormazabal eta Gabino Etxeberria Frantziako espetxeetan daude. Etxerat elkarteak salatu duenez, oso egoera gogorrean daude: Asier espetxe batetik bestera dabilkete, isolamentu zeldatan sartu dute, bisitak ukatzen dizkiote eta era guztietako irainak jasan behar izan ditu. Ormazabal eta Nobleren egoeraz gain Gabino Etxeberriarena ere gogoratu arazi nahi du Etxeretek, ia urte osoan bakarrik eduki baitute, Hernanitik 1.000 kilometrora. □

## MAHAI TENISA

### Hernani-Easok 4-2 irabazi dio Atletico San Sebastian liderrari

■ Hernani-Easok bigarren postuan jarraitzen du.



Luis Etxeto Atletico San Sebastianeko jokariaren kontra.

HERNANI-Easok 4-2 hartu du mendean bigarren mailako liderra, Atl. San Sebastian. Partiduak Ayeten jokatu ziren eta Hernani-Easo taldean Kim Pla, Luis Etxeto eta Txema Armentiak jokatu zuten.

Donostiarrak hasi ziren irabazten, baina, Hernani-Easo taldeak berehalaxe berdindu zuen partidua, eta, baita aurretik jarri ere. Binakako partiduetan donostiarrak izan ziren nagusi, baina, buruz burukoak erabaki zuen gauza eta hor Hernani-Easokoak hobeto ibili ziren. Azkeneko partiduan Txema Armentia hernaniarrak 3-0 irabazi zion Vaquerizari eta hor bukatu zen

neurketa. Ekipoak Bigarren mailako bigarren postuan jarraitzen du.

### PARTIDUAK HERNANIN

Datorren asteburuan Bigarren mailakoek deskantsu hartuko dute eta beste kategorietako batzuk Hernanin jokatuak dituzte partidua. Liga Autonomikoan, Hernani-Easok Leka Enearen kontra jokatu du kiroldegian, arratsaldeko 16:00etan. Eskolarteko partidua Hernanin jokatu da. Liga Probintzian, berriz, Irunen jokatu dira bi partidua: lehenengo mailan, Luberriren kontra eta bigarrenean Leka Enearen kontra. □

### IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40: Patri Goialde Jazz musikariari elkarriketa 17:00: Burrenada gazte saioa 23:00: Kale Kantoian literatur saio.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750  
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077  
▶ Gaez: Iturralde 13 Poligonoa, 9 ☎ 943 363395

### IRAGARKI MERKEAK

■ Asteleheneetik ostiralera, goizetan umea zainduko duen pertsona bat behar dugu. Donostiako Aiete auzoan. Astean 35 ordu eta irakasleen egutegia. Interesatuak deitu 943 314784 (Bakarne)